

Ihesi

Euskal Herria ezagutuz

TESTUA ETA ARGAZKIAK:
UNAI CUEVAS



Ganekogorta mendia (Bizkaia)

Adar jotzaileen tontorra

Pagasarri anaiaren baimenarekin, Bilbo inguruko mendietan ospetsuena dugu Ganekogorta.

Itsasoaren mailatik mila metrora ordu pare batean igotzeko aukera eskaintzen duten gailur bakarretakoa da. Ez da bereziki gogorra, baina beraren gainera ailegatu nahi duenak izerdi tanta bat baino gehiago bota beharko du. “Paga” igo ondoren, “Ganeko” egongo da zain.

Nahiz eta Ganekogortara igotzeko hainbat bide dagoen, oraingoan Bilboko Larraskitu auzotik abiatuko gara. San Adrian atzean utzi, autobide gainetik igarotzen den zubia zeharkatu eta berehala ailegatuko gara Larraskitura. Bestela, Errekaldeko plazatik gora El Fangoko kiroldegirako bideak leku berera eramango gaitu. Abiapunturaino indarrez fresko iritsi nahi izanez gero, 76. zenbakia (Moyua-Rekalde) duen Bilbobusa har daiteke, gerald-

kua parean baitu. Pixka bat gorago utziko gaituena ere bada, A-8 autobusa (Ametzola-San Justo), alegia.

Hortik gora, Benta Barritik pasa ostean, Igertuko mendi lepora eramaten duen bidea jarraitu behar da. Han, askaltzeko gune baten ondoren, errepidea bukatzen da.

Pagasarrira doan ibilbide berari jarraituz, berehala autoei igoera galarazten dien atea aurkituko dugu. Metro gutxira, Zapaburu iturriaren paretik pasatu baino lehen, Erroke

Deuna ermitara daraman bidegurutzea ikusten da ezkerrean. Baita basiliza bera ere, apur bat harago, gaintxo batean.

Aurrerago aurkituko dugun bihurtzearen ezkerreko aldean, “Pagasarrira Artabetik” eta “Pagasarrirako bide zaharra” dioten errotuluak ikusiko ditugu. Guk eskumara jo eta hogei minuturen ostean, Gangoitiko gune txikira helduko gara. Bertan, ezkerreko bidea hartuz gero, aldapa eta gune lauak tartekatu ostean eta pinudi baten

Ganekogortak ikuspegi ederrak eskaintzen dizkigu. Ezkerrean, Artibeko urtegia eta urrunago, Alonsotegi herria. Eskuman, Txosnagane mendiaren gailurra.





Gailurrera iritsi aurreko azken aldapa igotzen.

ondotik igarota, Arnategi eta Pastorekorta ikusiko ditugu aurrez aurre. Handik gutxira Pagasarriko aterpea dagoen muinora iritsiko gara.

Pista bera utzi gabe zuzen jarraituko dugu. Eskuman Tarineko iturrira doan bidearekin egingo dugu topo, baina ez diogu kasurik egingo. Bost minuturen buruan, Azordiagako harana eta Ganekogortako mendigunea parean agertzen zaizkigun heinean, beti ere zuzen jarraituz, lau seinale dauden eremura ailegatu gara. Puntu horretan aurkituko ditugun errotuluen arabera, hiru kilometro geratzen dira gailurrera iristeko.

Muñaganera heltzean, bideak pendiz handia hartuko du. Handik

metro gutxira, Txosnagane edo Larrentxuko (876 m.) maldetatik ekingo diogu igoerari berriro ere. Mendi hori Ganekogortarekin batzen duen igarolekuraino ordu erdi bat gehiago izango dugu. Handik denbora tarte berdiner gutxi gora behera, Txosnagane eta Pagasarri sorbalda emanik, Ganekogortako gailurrera iritsiko gara. Mugarri zuri handi bat ikusiko dugu, eta harekin batera, mapa zilindrikoa, inguruan ikusten denari buruzko informazioa ematen duena. Mapak gailur ospetsu honen historiako pasarteak biltzen ditu, "ganekogortarrei" aipamen berezia eginez. XIX. mendearen amaieran, Bilboko inguruneetan

mendizaletasuna sustatu zuten gazte talde bat izan ziren ganekogortarrak.

Erdi Aroko adar jotzeak

Ganekogortak, Gorbeia, Oiz, Sollube eta Kolitzarekin batera, deiadar mendien boskotea osatzen zuen Erdi Aroan. Gailur horietatik, Bizkaiko jaurrekiko batzarkideei dei egiten zitzaaien, sua eginez eta adarra joz. Garai haietako komunikazio bitxi hura ezagutarazteko asmoz, 2004. urteaz geroztik Deiadar Mendien Eguna ospatzen da. Hala, urtean behin, milaka mendigoizale eta ohitura zaharren maitale bost mendi horietara igotzen dira, adarra jotzera. ■

20, 30, 35, 40... eta 50 urtera arteko hipotekak. Tasazio-balioaren %100eraino eta abalik gabe.

etxetik botako zaituzte

zeure erara

bbk

hipotekak